

Bezero berriak lortzeko ezinbestekoa da pertsonak gure enpresa ezagutzea, eta, horretarako, gure produktuek gure enpresaren logoa izango dute ikusgai. Gainera, gure enpresa ezaguna izan dadin, pertsonak ikuspen urria edo itsuak dituzten eguneroko arazoez kontzientziatu behar ditugu. Irrati bidezko publizitatea egokiena dela uste dugu; izan ere, gure bezeroak, hau da, itsuak eta ikusmenean arazoak dituzten pertsonak, gai dira komunikabide hori entzuteko.



Gure bezeroek hainbat denda izango dituzte beren herrietan, eta denda horiek itsuentzat edo ikuspen urriko pertsonentzat guztiz irisgarriak izango dira. Gainera, gure dendak erraz iristeko lekuetan egongo dira.

Gure laguntzaileak bezeroei laguntzen saiatuko dira. Gure enpresak jasotzen dituen deiei pertsonak erantzungo diete, eta ez makinek, epe laburrean, bezeroak denbora luzez itxaroten ez egoteko. Gainera, gure arreta zerbitzua 24 ordukoa izango da. Horrez gain, bezeroei nahi duten laguntzailearekin harremanetan jartzeko aukera emango zaie. Horretarako, haien izen-abizenak gogoratu besterik ez dute egin behar, eta enpresa laguntzaile horrekin harremanetan jarriko da bezeroaren zerbitzurako jartzeko.

Horretaz aparte, produktuen eta enpresaren kalitatea hobetzeko, produktua erosi eta sei hilabetera inkesta batzuk bidali egingo dira, bezeroen eta pertsonen iritziak jakiteko. Inkesta horietan balioetsiko dira pertsonen iritziak eta haiek uste dutena enpresak zer egin dezakeen hobetzeko. Inkesta horiek ez dira nahitaezkoak izango, eta gure enpresaren edozein dendatan edo mugikorrean egin ahal izango dira.

